

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

40/2020 Mozioa, uztailearen 6koa, zeinaren bidez foru-sektore osoari eskatzen baitzaio bete dezala gardentasun arloko araudia

Arabako Batzar Nagusi hauetako Lehendakaritza, Euskara, Berdintasun, Lankidetzeta eta Giza eskubideen I. Batzordeak, 2020ko uztailearen 6an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

40/2020 Mozioa, uztailearen 6koa, zeinaren bidez foru-sektore osoari eskatzen baitzaio bete dezala gardentasun arloko araudia.

1. Arabako Batzar Nagusiek honako hau eskatzen diete oraindik ere Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Legea betetzen ez duten foru-organismo autonomoei, zuzenbide pribatuko foru-erakunde publikoei, foru-sozietate publiko, sektore publikoko foru-fundazioei eta sektore publikoko foru-partzuergoei: mozio hau onartzen denetik hiru hilabeteko epean euren eduki digitalen ebaluazio- eta ekintza-plan bat gauza dezatela, atari digitalek Gardentasunari buruzko Foru Araua betetzen dutela bermatzeko.

2. Arabako Batzar Nagusiek foru-sektore publikoaren parte diren erakunde horiei eskatzen diete egokitzapen eta ezarpen hori modu koordinatu, argi, eskuragarri eta egituratuan gauza dezatela, eta publikotasun aktiboaren xede den informazioa eguneratuta mantentzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailearen 6a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA